# UDALBATZARRAK 2023ko IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko irailaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Ana Agesta Echecolonea
Jose Mª Aranzabe Urruzola
Nagore Arizeta Garmendia
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Otegi Zubillaga
*Koldobika Jauregi Zinkunegi*

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

**1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
**✓ 2023ko uztailaren 18an egindako ohiko bilkuraren akta.**
**✓ 2023ko abuztuaren 1ean egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
**✓ 2023ko irailaren 12an egindako ez ohiko bilkuraren akta**
**2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
**3. Fakturak eta ordainketak.**
**4. Laguntza teknikorako eta administrazio publikoek suspertze, transformazio eta erresilientzia planean parte hartzea dinamizatzeko zerbitzura atxikitzeko protokoloaren onespena.**
**5. Naturaren doinuak eguna egiteko diru-laguntza eskaeraren azterketa.**
**6. Historia aurreko miaketa arkeologikoak Alkizan proiektuaren lanak egiteko kontratua esleitzea.**
**7. Beste batzuk**
**8. Mozioak, erreguak eta galderak.**

**.../...**

***LEHEN PUNTUA***
**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2023ko uztailaren 18ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2023ko abuztuaren 1ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2023ko irailaren 12ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

***BIGARREN PUNTUA***
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 58/2023tik 70/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

***HIRUGARREN PUNTUA***
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|---|---|
| BIZIPOZA KULTUR ELKARTEA | 420,00 |
| HARITZ ECEIZA | 3.572,22 |
| HARITZ ECEIZA | 834,90 |
| NAFARKOOP | 1.197,90 |
| KIROLZER | 29,10 |
| GOIENER | 12,46 |
| GOIENER | 23,54 |
| GOIENER | 20,03 |
| GOIENER | 5,69 |
| GOIENER | 60,38 |
| GOIENER | 118,52 |
| NORTEGAS | 126,25 |
| CORREOS | 11,72 |
| CONTENEDORES SARASOLA | 135,36 |
| ORANGE | 35,27 |
| URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA | 1.281,39 |
| GUREAK MARKETING | 2,93 |

ALKIZAKO UDALA

| | |
|---|---|
| URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA | 423,50 |
| EBA ERKIZIA BRION | 1.631,49 |
| MAQUELSA | 10,29 |
| IZADI LABORATEGIA | 165,77 |
| IZADI LABORATEGIA | 165,77 |
| SERVIGRAF | 73,81 |
| ARGITU ASESORES | 323,63 |
| NORTEGAS | 246,16 |
| ORANGE | 262,41 |
| NORTEGAS | 52,62 |
| OSCAR GALINDO | 133,10 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 107,57 |
| SOLRED | 127,30 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 50,11 |
| CORREOS | 5,56 |
| BEOTIBAR | 459,00 |
| LYRECO | 380,24 |
| QUISER | 185,57 |
| KEY-LAN | 84,92 |
| GASTEARENA | 10,29 |
| KAIZ LORENDENDA | 120,00 |
| KIROLZER | 29,10 |
| ANTZA INPRIMATEGIA | 323,07 |
| GUREAK MARKETING | 0,57 |
| JUAN HERRARTE | 2.907,63 |
| EBA ERKIZIA | 1.320,32 |
| IZENPE | 56,76 |
| DIMARPE | 252,97 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 54,16 |
| SOLRED | 127,78 |
| MAQUELSA | 4,74 |
| IZADI LABORATEGIA | 3.049,20 |
| ARGITU ASESORES | 316,85 |
| OSCAR GALINDO | 133,10 |
| LUIS FERNANDO ETXEBERRIA | 841,50 |
| QUISER | 168,36 |
| TOLOMENDI | 1.011,90 |
| HEGOTIK | 70,00 |

| | |
|---|---|
| OSTARBI ERAIKUNTZAK | 3.546,51 |
| MIKEL LARRAÑAGA | 326,70 |
| HODEI IRURETAGOIENA | 326,70 |
| IKER VICENTE | 326,70 |
| GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA | 739,43 |
| ERNESTO EZPELETA | 326,70 |
| PABLO AZPIAZU | 326,70 |
| ENEKO OTAÑO | 326,70 |
| ALKIZAKO HERRI OSTATUA | 874,00 |
| ALKIZAKO HERRI OSTATUA | 54,40 |
| ALKIZAKO HERRI OSTATUA | 56,60 |
| UDALATX | 684,11 |
| MAIALEN LUJANBIO | 298,26 |
| ANDER ALTUNA | 326,70 |
| UNAI NARBAIZA | 330,00 |
| ARIMA COOL TOUR | 935,00 |
| SEBASTIAN LIZASO | 298,26 |
| GARAJE IBARRA | 562,30 |
| GOIENER | 158,36 |
| GOIENER S. COOP | 783,39 |
| GOIENER S. COOP | 10,88 |
| GOIENER S. COOP | 28,79 |
| GOIENER S. COOP | 30,23 |
| GOIENER S. COOP | 6,33 |
| GOIENER S. COOP | 18,48 |
| GOIENER S. COOP | 141,45 |
| GOIENER S. COOP | 10,02 |
| UGAITZ MUGERZA | 326,70 |
| LAIOTZ MUSIKA TALDEA | 2.255,00 |
| DE JOTAS | 605,00 |
| TRANSPORTES ROTETA | 786,50 |
| NORTEGAS | 143,28 |
| NORTEGAS | 14,00 |
| NORTEGAS | 18,19 |
| ORANGE | 304,25 |
| ORANGE | 35,27 |
| GOIENER | 111,80 |
| GOIENER | 10,32 |

| | |
|---|---|
| GOIENER | 22,64 |
| GOIENER | 1,51 |
| GOIENER | 25,24 |

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **40.088,18** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

***LAUGARREN PUNTUA***

**LAGUNTZA TEKNIKORAKO ETA ADMINISTRAZIO PULBIKOEK SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN PARTE HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZURA ATXIKITZEKO PROTOKOLOA**

Ikusirik 2023ko otsailaren 7an, Ministro Kontseiluak baimena eman zion Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren enkargua egiteko TRAGSATEC bitarteko propioari, Europako Funtsen Idazkaritza Nagusitik zuzenduko da, administrazio publikoek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean (PRTR) parte hartzeko laguntza teknikoa eta dinamizazioa emateko zerbitzua aurrera eramateko. Zerbitzu hori, bereziki, 5.000 biztanletik beherako EELLei zuzenduta dago; izan ere, EELLek dira baliabide tekniko eta giza baliabide gutxien dituztenak planean parte hartzeko eta Europako eta nazioko araudiarekin bat etorriz administrazio horrek dakartzan betebehar eta betekizunak betetzeko.

Horren harira, TRAGSATEC enpresaren zerbitzua bost jarduera-multzotan banatuko da. Protokolo honen arabera bat egiten duten herri-administrazioek aukera izango dute, enkarguaren iraunaldian, denetara edo horietakoren batera jotzeko, mandatuaren III. eranskinean agertzen den mandatuari atxikitzeko egintza sinatu ondoren. Hona hemen jarduera horiek:

-Administrazio Publikoek PRTRn duten parte-hartzea dinamizatzea eta zerbitzuari atxikitzea izapidetzen laguntzea

-Azpiproiektuen parte-hartzean, jarraipenean eta gauzatzean laguntza teknikoa ematea.

-Laguntza teknikoa informazio-sistema integratua erabiltzeko (Coffee)

-PRTR kudeatzeko betebeharrak betetzeko laguntza teknikoa

-Jardunbide egokiak biltzea eta zabaltzea

Beraz, zerbitzu hau jaso ahal izateko, Alkizako udalak aipaturiko protokoloari atxiki egin behar zaio, horretarako III. Eranskina onartu eta sinatuz. Ondoren Idazkari-kontuhartzailea zein den jakinaraziz, dokumentua bete eta sinatu egin behar da.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Laguntza teknikorako eta administrazio publikoek suspertze, transformazio eta erresilientzia planean parte hartzeko zerbitzura atxikitzeko protokoloa onestea, eta Alkizako udaleko idazkari-kontuhartzailea zein den berri ematea.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez alkate jaunari, aipaturiko protokoloa sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tragsatec enpresari ematea.

***BOSTGARREN PUNTUA***
**NATURAREN DOINUAK EGUNA EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusita 2023ko ekainaren 11an, Alkizan, Naturaren doinuak eguna ospatu zela, bertan, egin ziren ekintzak antolatu ahal izateko, soinu teknikari, musikari, produktoreak etb. parte hartu zuten, guzti honen kostua 4.050,00 euroko gastua izan zelarik.

Beraz, Naturaren doinuak egunean izandako ekintzek ordaindu ahal izateko Tolosaldeko ahots gazteen elkarteak 500,00 eurotako diru-laguntza bat eskatu dio Alkizako udalari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Ahots Gazteen Elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza bat ematea, Alkizan, pasa den ekainaren 11an, Naturaren Doinuak eguna ospatzeko antolatu zituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA: 500,00 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2023ko udal aurrekontuetako 226.330.00.99 ekintza kulturak kontu sailaren kargura.

***SEIGARREN PUNTUA***
**HISTORIA AURREKO MIAKETA ARKEOLOGIKOAK ALKIZAN PROIEKTUAREN LANAK EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEA**

Alkizako Udalak interesgarria ikusten du historia aurreko miaketa arkeologikoak Alkizan egitea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *ZERBITZU* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*ZERBITZU* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEARI, Alkizan historia aurreko miaketa arkeologikoak egiteko lanen kontratua esleitzea 8.907,80€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 602.336.00.01** kontu sailaren kontura **"Indusketak: ondare arkeologikoak".**

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

***ZAZPIGARREN PUNTUA***
**BESTE BATZUK**

*19.40 orduak direnean Koldobika Jauregi zinegotzia bilera honetara bertaratzen da.*

**7.1.J.G. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik J.G. jaunak eginiko eskaera, non 2023 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiten duen.

Ikusirik, J.G. jaunak eginiko eskaera egoera berezitzat hartzen dela.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.G. jaunari ura eta zabor tasetan % 75ko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunei jakinaraztea.

**7.2. TOLOSALDEA GARATZENI, 2023 URTEKO 2. ZATIIAREN EKARPENA BURUTZEA.**

Ikusirik Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non, 2022ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, Alkizako Udalari 2023 urteari dagokion ekarpena 6.564,00 eurotakoa dela jakitera ematen dio, lehenengo ekarpena, 3.282,00 eurotakoa martxoaren 30erako eta bigarrengo ekarpena irailaren 30erako egin behar dena 3.282 eurotakoa.

Ikusirik 2023ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidan aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Ikusita oraingoan Tolosaldea Garatzenek egiten duen eskaera, non bigarren ekarpena burutzeari buruzkoa.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2023 urteko ekitaldiari dagokion bigarren ekarpena onestea eta burutzea, 3.282,00 eurotakoa delarik.

BIGARRENA.- Gastua 2023 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

**7.3. 2023/2024 IKASTURTEAN, ALKIZAN, PILATES IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO NAGORE ERRAZKIN OTAÑO ANDEREARI ESLEIPENA, HALA BADA**

Kontuan hartuta Alkizako udalerrian 2023-2024 ikasturtean zehar garatuko diren ekintzak eta izena emantakoen kopurua ikusirik,

Ikusirik 2017ko SPKLaren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratazioko organoak kontratuaren arduraduna izendatu behar duela.

Ikusirik Kontratu txikia dela, SPKLren 131.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta luzaezina den urte beteko iraupena duela, aipatu Legearen 29.8. artikuluaren arabera.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Nagore Errazkin Otaño andereari esleitzea, Alkizako herrian 2023/2024 ikasturterako pilates klaseak eman ditzan. Guztira, 2.340,00€ + (BEZa) kopuruko gastua izanik.

2023ko ekitaldiari dagokionez, udal aurrekontuko 226.340.00.06. kontu-sailetik finantzatuko da, eragindako etorkizuneko ekitaldietan dagozkion kredituak gordetzeko hitza hartuz.

BIGARRENA: Nagore Errazkin Otaño anderearekin, zerbitzu emakidarako administrazio-kontratu bat sinatzea 2023-2024 ikasturtean zehar, 2023ko urriaren 1etik 2024ko ekainaren 20arte, horretarako egokitutako udalaren lokaletan pilates eskolak emateko, ordu bakoitzeko 59 euroko prezioagatik, ( BEZa barne).

HIRUGARRENA: Emango den ikastaroko orduak 2023-2024 ikasturterako ekintzen programazioan Udaleko Kultura batzordeak finkatutakoak izango dira, eta printzipioz, ordu horiek ikasturte guztirako 48 izango dira. Hori guztira, 2.340,00 euro inguruko kontratazioko aurrekontu bat da +(BEZa).

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Udaleko kultura dinamizatzailea izendatzea.

BOSTGARRENA: Ordainketa, faktura aurkeztutakoan egingo da. Faktura egin beharko da indarrean dagoen legediak zehazten duen bezala eta lana jasotzen duen unitatea, edo, hala balegokio, kontratuaren arduraduna ados egonda. Zerbitzua eman dela egiaztatzen duen agiria onartu ondoren, 30 eguneko epean ordainduko da faktura.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsoak adieraziz.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**
**MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

*IDAZKARIAK*

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus